

3. FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure enpresak hainbat hornitzaile eta bazkide behar ditu proiektua arrakastaz garatzeko.

Hornitzaile garrantzitsuenak ondorengoak dira:

1) **Leroy Merlin** izango dugu egur hornitzaile nagusi, bere bitartez kalitatezko egurra lortuko dugu.

2) **Trek** eta **SSCAR Carbon Wheels** enprekin lanean arituko gara karbonozko gurpilen hornidurarako. Hornitzaile hauen bitartez lortzen ditugun produktuak, gurpilak, ezinbestekoak dira gure bizikleten pisua murriztu eta erresistentzia handitzea ahalbidetuko baitute.



3) **Bike24** ere izango dugu gure hornitzaileen artean, eserlekuak eta osagarri ergonomikoak lortzeko. Ezinbestekoak dira beraien bitartez lortzen ditugun produktuak, erabiltzaileen erosotasuna bermatzeko.

4) **Hispanoracing** izango da kate eta transmisio piezak hornituko dizkigun kolaboratzaile fidagarria. Produktu hau ere ezinbestekoa da gure bizikleten errendimendua hobetzeko.

Hornitzaile klabe hauek kalitatezko materialak eskaintzen dizkigute, iraunkortasuna eta berrikuntza bermatzen dituzte, horregatik gure garapenerako funtsezkoak dira. Horrez gain, euren esperientzia eta baliabideei esker, gure produktua hobeagoa izango da eta merkatuan lehiakorragoak izango gara.



Gure enpresaren bazkideak enpresa sortu dugun 5 kideak gara, proiektua sortu eta aurrera eramanez. Bostok elkarrekin egiten dugu lan enpresa ondo funtziona dezan. Bazkide bakoitzak bere ideiak, ezagutzak eta trebetasunak ekartzen ditu, eta horri esker erabaki hobeak hartzen ditugu eta arazoak errazago konpontzen ditugu.

Gure arteko lankidetza oso garrantzitsua da, elkarri laguntzen diogulako eta ardura desberdinak partekatzen ditugulako. Horrela, proiektua sendoagoa da eta gure produktua merkatuan lehiakorragoa izatea lortzen dugu.. Bazkide hauekin ditugun akordioak ezinbestekoak dira negozio-eredua optimizatzeko, arriskuak murrizteko eta gure kabuz lor ezin genitzakeen baliabide espezializatuak eskuratzeko.

Etorkizun batean, behin enpresa egonkortu ostean bazkide gehiago sar daitezke gure proiektuan parte hartzera, gure negozio eredua gauzatzeko enpresarekin lankidetzan aritzen diren pertsonak edo erakundeak izan daitezkeelarik. Enpresarentzat baliabidea, ezagutza edo harreman estrategikoak eskaintzen dituzten pertsonak edo enpresak izan daitezke, eta kontutan izan beharko genuke bakoitzaren rola argi eta garbi definitzea ezinbestekoa dela, proiektua aurrera eramateko eta eragile garrantzitsuenen ekarpena lehenesteko.